

Puzkerrontzius doktore ospetsua munduan
den **puzkerren aditu** handiena da.

Liburu honetan bere sailkapen garrantzitsua
aurkituko duzu. **Megapuzkerra**, **puzker jauzia**,
zanpatutako puzkerra edota **ninja puzker** isila
ezagutuko dituzu.

Eta, botatzen al dute puzkerrik **urpekariek**?

Astronautek? Eta **irakasle** eta
orkestra zuzendariek?



Puzkerrontzius Doktoarearen puzkerrak

Pilar Serrano Erica Salcedo



PUZKERR- ONTZIUS DOKTOREAREN PUZKERRAK

PILAR SERRANO ERICA SALCEDO





*Luis, Miryam eta Salvari, nire “puzkerretan” sinesteagatik.
Eta Juanitori, nire inspirazio izateagatik eta
katalogo hau hazten laguntzeagatik.*

Pilar Serrano

Leo eta Solasentzat, liburu honek hainbeste barre eragin dientzat.

Erica Salcedo



Puzkerrontzius Doktorearen puzkerrak
Somos8 Bilduma

© testuarena: Pilar Serrano, 2026
© irudiena: Erica Salcedo, 2026
© argitalpenarena: NubeOcho, 2026
© itzulpenarena: Beñat Muxika, 2026
www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *Los pedos del Doctor Pedorretus*


Lehen argitalpena: Urria, 2026
ISBN: 979-13-88132-73-5
Lege Gordailua: M-18015-2026

Espainian inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta dago obra honen erreprodukzioa.

PUZKERR- ONTZIUS DOKTOREAREN PUZKERRAK


PILAR SERRANO ERICA SALCEDO





PUZKERRAK, haize, putz edo flatulentzia gisa ere deituak, barre eta zalaparta eragile izan dira **historiako** aro guztietan... eta baita historiaurrean ere!


Barre eragin dute... espazioan ere!



PUZKERRONTZIUS DOKTOREAK, gai honetan **jantzia**
denak, **urte** asko daramatza puzkerrak ikertzen.

Bere sailkapen ospetsuan bildutako
garrantzitsuenak azalduko dizkizugu.





RRooooooooooooom

LURRIKARA PUZKERRA

Denetan indartsuena, luzea, zaratatsua eta kirats handikoa.
Suntsipen handiko arma.

Paleontologoek baieztatzen dutenez, **FLATULOSAUROAK**
bota zuen puzker hau, **tiranosauo rexarekin** eta beste
belarjale batzuekin **borrokan** zebilela. Bada **dinosauroen**
desagerpena horrela hasi zela uste duenik ere.

PUZKER IHESKORRA

Azkarra da, laburra, zaratatsua eta indartsua.

Puzker-haize honi esker, **HAIZISTOTELES** (Puzkerrontzius Doktorearen birraitonaren birraitonaren aitona greziarrak) **urrezko** domina irabazi zuen 400 metroko lasterketa proban, lehen **Olinpiar Jokoetan**.

Puzkerrak aurrerantz bultzatu zuen bera, eta **lehiakideak** zorabiatu. Olinpiar Jokoetako **garaipena** eman zion!



EGIAREN PUZKERRA

Nahi gabe **ihes egiten** duen eta **disimulatu ezin** daitekeen puzker txoro hori da. Bota duen pertsonak ez du erruduna dela **aitortzea** beste erremediorik.

PUZKERRAMIX druida ospetsua bere lehen **druiden** bileratik kanporatua izan zen. Arrazoia? **Meditazio isil** baten erdian puzker hauetako batek ihes egin zion.



PUZKIRRINA

Erdi **puzker**, erdi **kaka-tirrin**, garbitzeko oso zaila den **orbana** uzten du barruko arropan.

LEONARDO PUTZ VINCHIK, bere **galtzontzilloak zikin** zeudela ohartzean, inspirazioa aurkitu zuen eta mundu zabalean **ezagun den** estilo piktorikoa sortu zuen.

Artistaren hainbat **koadrotan** ikus daitezke estilo piktoriko honen adibideak. Nahiz eta berak ez zuen inoiz onartu nahi izan estiloaren **insiprazioa** nondik etorri zitzaion (bai, bere gantzontzilloetatik!).

